

2023 URTERAKO BILBAO BIZKAIA
HELMUGAREN TURISMO GARAPEN
JASANGARRIRAKO DIRULAGUNTZEN
PROGRAMAREN OINARRI
ARAUTZAILEAK ETA DEIALDIA
ONARTZEN DITUEN BIZKAIKO FORU
ALDUNDIAREN FORU DEKRETUAREN
PROIEKTUAREN MEMORIA
EKONOMIKO-ADMINISTRATIBOA ETA
ERREGULAZIO ONAREN PRINTZPIOEI
BURUZKOA

MEMORIA ECONÓMICO-
ADMINISTRATIVA Y DE PRINCIPIOS DE
BUENA REGULACIÓN DEL PROYECTO
DE DECRETO FORAL DE LA
DIPUTACIÓN FORAL DE BIZKAIA POR EL
QUE SE APRUEBAN LAS BASES
REGULADORAS Y CONVOCATORIA DEL
PROGRAMA DE SUBVENCIONES
DESTINADAS AL DESARROLLO
TURÍSTICO SOSTENIBLE DEL DESTINO
BILBAO BIZKAIA PARA EL AÑO 2023

Bizkaiko Foru Aldundiaren Foru Dekretuaren proiektua; horren bidez 2023 urterako Bilbao Bizkaia helmugaren turismo garapen jasangarrirako dirulaguntzen programaren oinarri arautzaileak eta deialdia onesten dira.

Proyecto de Decreto Foral de la Diputación Foral de Bizkaia por el que se aprueban las bases reguladoras y la convocatoria para el año 2023 del programa de subvenciones destinadas al desarrollo turístico sostenible del destino Bilbao Bizkaia.

I) AURREKARIAK

Gobernu Kontseiluak 2022ko abenduaren 20an onartutako 2023ko UAPn aurreikusita dago hasiera batean (gai-zerrendako 71. gaia).

Ekonomia Sustatzeko Saileko foru diputatuaren azaroaren 14ko 8360/2022 Foru Aginduaren bidez onetsitako 2023rako DPBren azken eguneratzean jasota dago.

Ez da laguntza-programa berria. Laguntza-programa honen oinarri arautzaileak eta dagozkien deialdiak Bizkaiko Foru Aldundiaren honako foru dekretu hauen bidez onartu dira:

- 2022 urtekoa: maiatzaren 24ko, 78/2022 Foru Dekretua.

Arestiko araudiarekin alderatuta egindako aldagetak aurrerago aztertuko dira, zehatzago esanda “gardentasunaren eta herritarren parte-hartzearen printzipioari” buruzko atalean.

I) ANTECEDENTES

Esta previsto inicialmente en el PAN 2023 aprobado por Consejo de Gobierno de 20 de diciembre de 2022 (asunto nº 71 del orden del día).

Esta contemplado en la última actualización del PES departamental para el año 2023 aprobado por Orden Foral 8360/2022, de 14 de noviembre, de la Diputada Foral del Departamento de Promoción Económica.

No es un programa de ayudas nuevo. Las bases de este programa de ayudas y su correspondiente convocatoria ha sido aprobada mediante el siguiente Decreto Foral de la Diputación Foral de Bizkaia:

- Ejercicio 2022: Decreto Foral 78/2022, de 24 de mayo.

Los cambios introducidos con respecto a la regulación anterior se analizan más adelante, concretamente en el apartado relativo al “principio de transparencia y participación ciudadana”.





1., 2., 3., 4., 5., 6., 7. eta 8. arloetan aurreikusitako dirulaguntzak ez dira estatu-laguntzak, arlo horietako erakunde onuradunek ez baitute jarduera ekonomikorik egiten, hau da, merkatu jakin batean ondasunak edo zerbitzuak eskaintzeko jarduera oro.

Hala ere, 9., 10., 11., 12., 13. eta 14. arloetan aurreikusitako dirulaguntzak estatu-laguntzak dira; izan ere, erakunde onuradunek jarduera ekonomiko bat gauzatzen dute, hau da, merkatu jakin batean ondasunak edo zerbitzuak eskaintzeko edozein jarduera. Hala ere, dirulaguntzak salbuetsita daude Europako Batzordeari aldeztu aurretik jakinarazteko betebeharretik, Europar Batasunaren Funtzionamenduari buruzko Tratatuaren 107. eta 108. artikulua minimis laguntzei aplikatzeari buruzko Batzordearen 2013ko abenduaren 18ko 1407/2013 (EB) Erregelamenduaren arabera.

Las subvenciones previstas en las áreas 1, 2, 3, 4, 5, 6, 7 y 8, no constituyen ayudas de estado ya que las entidades beneficiarias de estas áreas no ejercen una actividad económica, definida ésta como cualquier actividad consistente en ofrecer bienes o servicios en un determinado mercado.

Sin embargo, las subvenciones previstas en las áreas 9, 10, 11, 12, 13 y 14 constituyen ayudas de estado ya que las entidades beneficiarias ejercen una actividad económica, definida ésta como cualquier actividad consistente en ofrecer bienes o servicios en un determinado mercado. No obstante, las subvenciones están exceptuadas de la obligación de notificación previa a la Comisión Europea en virtud del Reglamento (UE) n.º 1407/2013, de la Comisión, de 18 de diciembre de 2013, relativo a la aplicación de los artículos 107 y 108 del Tratado de Funcionamiento de la Unión Europea a las ayudas de minimis.

II) ERAGIN EKONOMIKOA ETA AURREKONTUEN ARLOKOA

Ukitutako partidak hauek dira:

II) IMPACTO ECONÓMICO PRESUPUESTARIO

Las partidas económicas afectadas son las siguientes:

Partida / Partida	Proiektua / Proyecto	Ekitaldia / Ejercicio	Zenbatekoa / Importe
0808/G/432109/43299	2009/0012	2023	250.000,00 €
0808/G/432109/44300	2009/0012	2023	100.000,00 €
0808/G/432109/45100	2009/0012	2023	590.000,00 €
0808/G/432109/44900	2009/0012	2023	40.000,00 €
0808/G/432109/73299	2009/0012	2023	200.000,00 €
0808/G/432109/74300	2009/0012	2023	20.000,00 €
0808/G/432109/75100	2009/0012	2023	150.000,00 €
0808/G/432109/74900	2009/0012	2023	50.000,00 €





2023ko ekitaldiari soilik eragiten dio, eta alderdi hori jasota zegoen 2020-2023ko Dirulaguntzen Plan Estrategikoan.

III) ADMINISTRAZIO-KARGEN ETA BEHAR DIREN GIZA BALIABIDEEN IDENTIFIKAZIOA

Kanpo Sustapenerako eta Turismorako Zerbitzuaren bitartekoekin inplementatuko da dekretua, sail bereko beste zerbitzu batzuekin koordinaturik, eta, beraz, ez da gastu gehigarririk izango arrazoi hori dela eta.

Lantiken bidez bideratzen da eskabideak telematikoki aurkezteko zeregina, espedienteak kudeatzeko sistemaren parametrizazioa, etab. Horregatik, zerbitzu horien zenbatekoa Foru Aldundiaren plan informatikoaren kontura egiten da.

IV) IZAN DEZAKEEN GENERO-ERAGINA

Kanpo Sustapenerako eta Turismorako Zerbitzuak 2023ko aurrekontuei dagokien EPIGa egiteko egindako txostenean islatzen den bezala, dekretu hau honako jarduketa honen barruan sartzen da: "Destinoko turismo-garapena babestea foru-dirulaguntzen bidez", zeinak zeharka eragiten baitu emakumeen eta gizonen berdintasunari dagokionez.

Era berean, genero-inpaktuari buruzko aurretiazko txosten bat egin da.

V) ERREGULAZIO ONAREN PRINTZPIOAK

Araudi honek, ekainaren 15eko Bizkaiko Foru Aldundiaren 87/2021 Foru Dekretuak ezarritakoak, honakoa eskatzen die administrazio publikoei: araugintzan 3. artikuluan ezarritako zenbait printzipioekiko ekimen bakoitzaren egokitzapena justifikatzeko.

Afecta únicamente al ejercicio 2023, aspecto ya contemplado en el Plan Estratégico de Subvenciones 2020-2023.

III) IDENTIFICACIÓN DE CARGAS ADMINISTRATIVAS Y RECURSOS HUMANOS NECESARIOS

La implementación del decreto se realiza con medios propios del Servicio de Promoción Exterior y Turismo, en coordinación con otros Servicios del propio Departamento; por lo que no conlleva gastos adicionales por este motivo.

La presentación telemática de solicitudes, la parametrización del sistema de gestión de expedientes, etc. se realiza a través de Lantik por lo que el importe de estos servicios se afronta con cargo al plan informático foral.

IV) POTENCIAL IMPACTO DE GÉNERO

Tal y como se refleja en el informe realizado por el Servicio de Promoción Exterior y Turismo para la elaboración del EPIG correspondiente a los presupuestos de 2023, el presente decreto se enmarca en la actuación "Apoyar el desarrollo turístico en destino a través de subvenciones forales" que impacta transversalmente en términos de igualdad de mujeres y hombres.

Asimismo, se ha realizado la Evaluación preliminar de impacto de género.

V) PRINCIPIOS DE BUENA REGULACIÓN

La normativa actual, establecida por el Decreto foral de la Diputación Foral de Bizkaia 87/2021, de 15 de junio, requiere a las administraciones públicas que, en el ejercicio de la actividad normativa, sea justificada la adecuación de cada iniciativa respecto a determinados principios que se establecen en el artículo 3.





Jarraian, erregulazio onaren printzipio horiek zerrendatuko dira, baita proiektutako testuak horietako bakoitzarekiko duen egokitzapena azaldu ere.

- Beharraren eta eraginkortasunaren printzipioa

Beharraren eta eraginkortasunaren printzipioaren arabera, ekimen arauemailea edo arauzko foru-xedapenaren proiektua interes orokorreko arrazoiekin egiaztatu beharko da. Halaber, lortu nahi diren helburuak zehaztu beharko ditu eta helburu horiei erantzun, baita horretarako egokien den arauzko tresna eratu ere.

Ekonomia Sustatzeko Sailaren misioa 5 ardatz estrategikotan egituratuta garatzea ahalbidetuko duten mekanismoak ezartzeko beharrak zehazten du proiektatutako testua. Bost ardatz horiek Foru Aldundiaren abenduaren 17ko 207/2019 Foru Dekretuan ezarrita daude; horren bidez Ekonomia Sustatzeko Sailaren Egitura Organikoaren Erregelamendua onartzen da. Horrela, «Bizkaia, lurralde erakargarria eta lotua» ardatzean, Bizkaiaren irudia kanpoan sustatzearekin eta turismoa sustatzearekin zerikusia duten jarduera guztiak bultzatzeko eta garatzeko programak aurreikusten dira. Ondorioz, Ekonomia Sustatzeko Sailak lanean jarraituko du Bizkaiak nortasun propioa izango duen eta nazioartean erakargarria den lurralde gisa duen posizionamendua sendotzeko, munduko nodo nagusiekin eta bisitariak, inbertsioak, talentua eta ekitaldiak erakartzeko aukera handikoekin konektatuta dagoena. Horretarako, Bizkaiak lehentasunezko nazioarteko merkatuetan duen posizionamendua indartuko eta sendotuko da, betiere hazkunde iraunkorra eta jasangarria sustatuz eta turismoa lurraldeko turismo-industriari zein biztanleria osoari mesede egingo dion garapen ekonomikoko jarduera gisa planteatuz.

A continuación se enumeran dichos principios de buena regulación, explicando consecuentemente la adecuación del texto proyectado en relación con cada uno de ellos:

- Principio de necesidad y eficacia:

En virtud del principio de necesidad y eficacia, la iniciativa normativa o proyecto de disposición reglamentaria foral debe estar justificada por razones de interés general, identificar los fines perseguidos, dar respuesta a tales objetivos y constituir el instrumento normativo más adecuado para tal fin.

El texto proyectado viene determinado por la necesidad de establecer los mecanismos que permitan desarrollar la misión del Departamento de Promoción Económica articulada en 5 ejes estratégicos establecidos en el Decreto Foral 207/2019, de 17 de diciembre, de la Diputación Foral, por el que se aprueba el Reglamento de Estructura Orgánica del Departamento de Promoción Económica. Así en el eje “Bizkaia, un territorio atractivo y conectado” se prevén programas de impulso y desarrollo de todas las actividades que tengan relación con la promoción de la imagen de Bizkaia en el exterior y la promoción turística. En consecuencia, el Departamento de Promoción Económica continuará trabajando para consolidar el posicionamiento de Bizkaia como un territorio con personalidad propia, atractivo a nivel internacional, conectado con los principales nodos mundiales y de gran oportunidad para la atracción de visitantes, inversiones, talento y eventos. Para ello se reforzará el posicionamiento de Bizkaia en los mercados internacionales prioritarios, promoviendo siempre un crecimiento sostenible y sostenido y planteando el turismo como una actividad de desarrollo económico que beneficie tanto a la industria turística del territorio como al conjunto de la población.





Ilde beretik, Bizkaiko Foru Aldundiak, Bizkaia Egiten 2019-2023 Estrategiaren esparruan, l. ardatzean, "Enplegu eta jarduera ekonomiko gehiago eta hobe" Bizkairako estrategia turistiko berria ezartzen da betiere iraunkortasunaren ikuspegitik. Horrela Bizkairako turismo-estrategia definituko eta abian jarriko da, turismo-destino eta -industria arduratsu eta iraunkor baten aldeko apustuan oinarrituko dena. Bide berri honek Bizkaia onura ekonomikoak, sozialak eta ingurumenekoak ekarriko dizkio eta Agenda 2030 eta Garapen Jasangarrirako Helburuak betetzen lagunduko du.

Testuinguru horretan, proiektatutako testuak Bilbao Bizkaia destinoaren garapen turistiko iraunkorra sustatzeko beharri estaldura eman nahi dio. Lehentasunezko helburuak hauek dira: turismoaren garapen iraunkorraren aldeko apustua egitea, lurralde-oreka sustatuz, bisitariak eta talentua erakartzea, eta lurralde osoan eragin sozioekonomikoa sortzea.

Behar horiei erantzuteko eta definitutako helburuak lortzeko, sail honen eskumen-eremua sustapena dela kontuan hartuta, orain proposatzen den arau-testua da behar horiei erantzuteko eta adierazitako helburuak lortzeko tresna juridikorik egokiena, betiere eskumen-eremu hori errespetatuz. Aztertzen ari garen arau-xedapenaren edukia finkatzerakoan diskrezio-ahala gauzatzearen aurrean gaudela kontuan hartuta, idazterakoan kontuan hartu dira publizitatearen, gardentasunaren, lehiaren, objektibotasunaren, berdintasunaren eta diskriminaziorik ezaren printzipioak; printzipio horiek guztiek dirulaguntza publiko guztiak gidatu behar dituzte eta, gure kasuan, Foru Administrazioak emandako dirulaguntzen araubide juridiko orokorra arautzen duen maiatzaren 31ko 5/2005 Foru Arauan ezartzen dira.

En la misma línea, la Diputación Foral de Bizkaia, en el marco de la Estrategia Bizkaia Egiten 2019-2023, establece en su eje I denominado "Más y mejor empleo y actividad económica" la nueva estrategia turística para Bizkaia en clave de sostenibilidad. Así se definirá y pondrá en marcha una estrategia turística para Bizkaia que se fundamentará en la apuesta por un destino y una industria turística responsable y sostenible que aporte beneficios económicos, sociales y ambientales a Bizkaia y contribuya a la Agenda 2030 y al cumplimiento de los ODS (Objetivos de Desarrollo Sostenible).

En este contexto, el texto proyectado pretende dar cobertura a la necesidad de fomentar el desarrollo turístico sostenible del destino Bilbao Bizkaia, teniendo como objetivos prioritarios: apostar por el desarrollo sostenible del turismo fomentando el equilibrio territorial, atraer visitantes y talento, así como generar impacto socioeconómico en todo el territorio.

Para dar respuesta a estas necesidades y conseguir los objetivos definidos, atendiendo al ámbito de competencias de este departamento, la promoción, el texto normativo que ahora se propone se considera que es el instrumento jurídico más adecuado para dar cobertura a esas necesidades y conseguir las finalidades indicadas respetando a la vez su ámbito competencial. Teniendo en cuenta que estamos ante el ejercicio de una potestad discrecional a la hora de fijar el contenido de la disposición normativa que nos ocupa se han tenido en cuenta en su redacción los principios de publicidad, transparencia, concurrencia, objetividad, igualdad y no discriminación que deben de guiar todas las subvenciones públicas y que, en nuestro caso, se establecen en la Norma Foral 5/2005, de 31 de mayo, por la que se regula el régimen jurídico general de las subvenciones otorgadas por la Administración Foral





- Proportzionaltasunaren printzipioa

Printzipio horren arabera, bultzatzen den arauzko neurriak aukerarik egokiena dela adierazi beharko du, baita eskubideak gutxiago mugatzen dituen edo proposatutako betebeharrak baino gutxiago ezartzen dituen beste neurririk ez dagoela ere.

Kasu honetan, aukerarik egokiena Bizkaiko Foru Aldundiaren Foru Dekretu bat da, laguntza horien 2023. urterako oinarri arautzaileak onesten dituen eta laguntza horietarako deialdia egitea erabakitzen duena, eta hori horrela da formula horrek orekatu egiten duelako diru publikoaren kudeaketa ekonomiko eraginkorra eta horiek ematea arautzen duten printzipioak.

Aurreikusitako dirulaguntzak emateko, egungo testuinguruan ez dago Bizkaiko Lurralde Historikoaren 2023rako aurrekontuetan aurreikusitako baliabide ekonomikoen kudeaketa hobetzeko beste aukerarik.

- Segurtasun juridikoaren printzipioa:

Irizpide horren arabera, Bizkaiko Lurralde Historikoak esleituta dituen eskumenen arabera erabiliko dira araugintza-ahalak, Europar Batasuneko Zuzenbidearekin eta gainerako ordenamenduekin bat, horrela arau-esparru egonkor, integratu, argi, egiazko eta aurrez ikus daitekeen bat sustatzeko, arauen hartzaileek errazago ezagutu eta ulertuko dutena.

Ikuspuntu horretatik, orain proposatzen den testua Bizkaiko Foru Aldundiak indarrean dagoen araudian esleituta dituen eskumenetan oinarrituta erabiliko da, eta bat dator Europar Batasuneko Zuzenbidearekin.

- Principio de proporcionalidad:

Conforme a este principio, la medida normativa que se impulse deberá reflejar que es la opción más idónea y que no existen otras medidas menos restrictivas de derechos o que impongan menos obligaciones que las propuestas.

En el presente caso, la opción más idónea es un Decreto Foral de la Diputación Foral de Bizkaia por el que se aprueban las bases reguladoras y se acuerda la convocatoria de dichas ayudas para el año 2023, ya que es una fórmula que equilibra la eficaz gestión económica del dinero público con los principios que rigen la concesión de las mismas.

Para la concesión de las subvenciones previstas, en el contexto actual no existen alternativas que mejoren la gestión de los recursos económicos previstos en los presupuestos del Territorio Histórico de Bizkaia para el año 2023

- Principio de seguridad jurídica:

Conforme a este criterio, las potestades normativas se ejercerán de acuerdo con las competencias que tenga atribuidas el Territorio Histórico de Bizkaia, de manera coherente con el Derecho de la Unión Europea y el resto del ordenamiento para promover un marco normativo que sea estable, predecible, integrado, claro, cierto y que facilite su conocimiento y comprensión por las personas destinatarias de las normas.

Desde este punto de vista, el texto que ahora se propone se ejerce en base a las competencias que tiene atribuidas la Diputación Foral de Bizkaia en la normativa vigente y es conforme con el Derecho de la Unión Europea.





Koherentea da arlo honetan aplikagarria den gainerako ordenamendu juridikoarekin; izan ere, zehatz eta zintzo erantzuten dio araudi osoan ezarritakoari, bai dirulaguntzak emateari dagokionez, bai administrazio-prozedura kudeatzeari dagokionez, eta hori idazterakoan kontuan hartu dira Ogasun eta Finantza Sailak horrelako tresnetarako onartutako eredia eta Gobernu Kontseiluak onartutako Araugintza Teknikoko Gidalerroak, bi dokumentuak bateratzen saiatuz.

- Gardentasunaren eta herritarren parte-hartzearen printzipioa:

Printzipio horren arabera, Bizkaiko Foru Aldundiak sarbidea erraztuko du indarreko arauetako xedapenentarako, formatu erraz, argi eta eguneratuen bidez, eta haiek prestatzeko berezko agirieta. Horretarako, argi definituko dira araugintza-ekimenen helburuak, kontsulta fasearen bitartez, edo, bestela, justifikazio-memorien bitartez, edo, gutxienez, xedapen arauemaile horien zioen azalpenean jasoko dira helburuok.

Helburuak foru dekretuaren proiektuaren zioen azalpenean eta edukian (1. oinarria) adierazi dira, eta web instituzionalaren gardentasuna/publizitate aktiboa atalean publikitate aktiboarekin lotutako printzipio horren alderdi erlatiboa betetzen da.

Parte-hartzearen printzipioarekin bat etorriz, herritarrek modu aktiboan parte hartu ahal izango dute Bizkaiko Foru Aldundian egiten diren arau-xedapen orokorren prestaketan, ondore horretarako ezartzen diren bitartekoen bidez.

Es coherente con el resto del ordenamiento jurídico aplicable a esta materia ya que responde fielmente a lo establecido en toda la normativa, tanto respecto a la concesión de subvenciones, como a la gestión del procedimiento administrativo y en su redacción se ha tenido en cuenta el modelo aprobado por el Departamento de Hacienda y Finanzas para este tipo de instrumentos y las Directrices de Técnica Normativa aprobadas por el Consejo de Gobierno, intentando cohesionar ambos documentos.

- Principio de transparencia y participación ciudadana:

Conforme al principio de transparencia, la Diputación Foral de Bizkaia facilitará el acceso mediante formatos sencillos, claros y actualizados, a las disposiciones normativas en vigor, así como a los documentos propios de su elaboración. A tal efecto, se definirán claramente los objetivos de las iniciativas normativas a través de la fase de consulta o, en su caso, mediante memorias justificativas, o al menos dejando constancia de los mismos en la exposición de motivos que acompañe a tales disposiciones normativas.

Los objetivos se han indicado en la exposición de motivos del proyecto de decreto foral así como en su contenido (base 1) y en el apartado transparencia/publicidad activa de la web institucional se da cumplimiento al aspecto relativo de este principio relacionado con la publicidad activa.

Conforme al principio de participación, la ciudadanía podrá participar activamente en la elaboración de las disposiciones normativas de carácter general que se lleven a cabo en la Diputación Foral de Bizkaia, a través de los medios que se establezcan.





Dirulaguntzen programa ez da berria, eta Bizkaiko Foru Aldundiaren ekainaren 15eko 87/2021 Foru Dekretuaren 26.1.b artikuluan jasotako kasua gertatzen da: “Beste xedapen batzuk ordezteko ematen diren xedapenak, gaia edozein dela ere, ordeztutako xedapenen xede bera dutenean eta ordezturiko xedapenen eduki bera badute edo eduki hori funtsean aldatzen ez badute, edo ordezten dituzten xedapenen indarraldia amaitu bada. Betiere, aurreko xedapen horiek egiteko eta onartzeko, foru-dekretu honetan ezarritako aurretiazko kontsulta publikoaren, entzunaldiaren eta informazio publikoaren izapideak egin badira”, eta ez dira egin herritarrek parte hartzeko izapideak.

Memoria honen xede den dekretu-proposamenak ez du funtsean aldatzen dirulaguntzen deialdi beraren aurreko arauketaren edukia; izan ere, ez zaie mugarik jartzen erakunde onuradunei, eta ez da aldatzen diruz lagun daitekeen egitatea, eta ez dira aldatzen balorazio-irizpideak, beharrezko argibideak izan ezik, eta ez da aldaketarik egiten ez prozeduran ez erakunde onuradunen betebeharretan, lege-aldaketen ondorioz ezarritakoak izan ezik. Erantsitako taulan, edukiaren aldaketak eta zergatik ez diren funtsezko aldaketa azaltzen dira.

- Azkartasunaren eta eraginkortasunaren printzipioak:

Printzipio horien arabera, ekimen arauemaileak indarreko xedapen arauemaileetan ezarritako epeetan onetsi beharko dira, erregulazioaren bidez ebatzi nahi diren arazoei berehalako erantzuna emate aldera, baita beharrezkoak ez diren edo osagarriak diren administrazio-kargak ekiditeko ere, betiere baliabide publikoen kudeaketa arrazionalizatuz.

Al tratarse de un programa de subvenciones que no es nuevo y darse el supuesto contemplado en el artículo 26.1.b del Decreto Foral de la Diputación Foral de Bizkaia 87/2021, de 15 de junio “Las disposiciones relativas a cualquier materia, cuyo contenido sea idéntico o no modifique substancialmente el contenido de otras con el mismo objeto a las que sustituyan o cuya vigencia sujeta a plazo hubiera finalizado, siempre que éstas hubieran sido sometidas a los trámites de consulta pública previa y audiencia e información pública para su elaboración y aprobación regulados en el presente Decreto Foral.” no se han realizado los trámites de participación ciudadana.

La propuesta de decreto objeto de esta memoria no modifica sustancialmente el contenido de la regulación anterior de la misma convocatoria de subvenciones ya que no se introducen limitaciones a las entidades beneficiarias ni se altera el hecho subvencionable, ni se modifican los criterios de valoración, salvo las necesarias aclaraciones, ni hay cambios en el procedimiento ni en las obligaciones de las entidades beneficiarias, excepto las que pudieran venir impuestas por cambios legales. En la tabla anexa se incluyen los cambios en el contenido y la motivación de por qué no constituyen un cambio sustancial.

- Principios de celeridad y eficiencia:

Conforme a estos principios las iniciativas normativas deberán ser aprobadas en los plazos establecidos en las disposiciones normativas en vigor con la finalidad de dar respuesta inmediata a los problemas que se pretendan resolver a través de la regulación, así como evitar cargas administrativas innecesarias o accesorias, racionalizando la gestión de los recursos públicos.





Batetik, memoria hau indarreko araudian ezarritako epean egin da, eta memoria honi lotutako testu arauemailea aplikagarri diren ezarritako epeak betez izapidetu eta bultzatuko da.

Bestetik, administrazio honentzat eta herritarrentzat beharrezkoak ez diren administrazio-kargei dagokienez. Administrazioari dagokionez, memoria honetako III. atalean aztertu da jada. Herritarrentzako kargei dagokienez, hau da, dirulaguntzen onuradun izan daitezkeenei dagokienez, dirulaguntzak errazago aurkeztu ahal izateko, elkarerraginean lortu ezin diren agiriak edo datuak baino ez dira behar, baldin eta eskatzaileak horretarako aukera badu eskaera egitean. Halaber, nahitaezko dokumentazioa eskatzen da, beharrezkotzat jotzen dena dirulaguntzen araudiak eskatzen duena betetzeko, bai eskaera-fasean, bai justifikazio-fasean.

- Kontu-ematearen printzipioa:

Printzipio horrekin bat etorritik, arau-testu hau onartu ondoren, Bizkaiko Foru Aldundiak horren onespeneren berri emango du, indarrean dagoen araudian adierazitakoaren arabera. Kasu honetan, dirulaguntzen araudiak ez du eskatzen Batzar Nagusiei eta/edo Herri Kontuen Euskal Epaitegiari jakinaraztea xedapen arauemaile hau onartu dela, erakunde horiek euren eskumenen esparruan egiten dituzten informazio-eskaerei edo kontrol-jarduerei kalterik egin gabe.

- Aurrekontu-egonkortasunaren eta finantza-iraunkortasunaren printzipioa:

Printzipio horien arabera, araugintza-ekimenek oraingo edo etorkizuneko gastu edo diru-sarrerei eragiten badiete,

De una parte, la memoria ha sido elaborada en el plazo establecido en la normativa en vigor y el texto normativo relacionado con la presente memoria se tramitará e impulsará cumpliendo los plazos establecidos que le resulten de aplicación.

De otra parte, en cuanto a las cargas administrativas innecesarias para esta administración y para la ciudadanía. En cuanto a lo afectante a la administración ya se ha analizado en el apartado III de esta memoria. En cuanto a las cargas para la ciudadanía, entendida como eventuales personas beneficiarias de las subvenciones, se intenta facilitar la presentación de las subvenciones requiriendo solo aquella documentación o datos que no sea posible obtener interoperando siempre que así se permita por la persona solicitante al formular la solicitud. Asimismo, se exige la documentación obligatoria y que se entienda necesaria para dar cumplimiento a lo que se requiere por la normativa de subvenciones, tanto en fase solicitud, como en fase justificación.

- Principio de rendición de cuentas:

Conforme a este principio una vez aprobado el presente texto normativo la Diputación Foral de Bizkaia dará cuenta de su aprobación según lo indicado en la normativa en vigor. En el presente caso la normativa de subvenciones no exige que se comunique a Juntas Generales y /o al Tribunal Vasco de Cuentas Públicas que se ha aprobado la presente disposición normativa, sin perjuicio de las peticiones de información o actuaciones de control que dichas instituciones realicen en el ámbito de sus respectivas competencias.

- Principio de estabilidad presupuestaria y sostenibilidad financiera:

Conforme a estos principios, si las iniciativas normativas afectan a gastos o ingresos presentes o futuros, se deben cuantificar y





kuantifikatu eta baloratu egin behar dira araugintza-ekimenen ondorio eta eragin ekonomikoak, bai eta adierazi ere nola berrmatuko diren haien finantzaketa nahiz iraunkortasuna.

Aztertzen ari garen kasuan, Bizkaiko Foru Aldundiaren Ekonomia Sustatzeko Sailaren aurrekontu orokorretan izango duen eragin ekonomikoa, foru-dekretuaren proiektuaren 55. oinarrian ezarritako zenbatekoa 1.400.000,00 euro izango da, memoria honen II. atalean adierazi den legez.

VI) XEDAPENAREN EDUKIA

Dekretu-proiektuak artikulua bakarra, xedapen gehigarri bat, xedapen iragankor bat, xedapen indargabetzaile bat, 2 azken xedapen ditu eta 2023ko deialdiaren oinarri arautzaileak onartzen ditu. Oinarri horiek 4 titulu, 84 oinarri eta 3 eranskin ditu.

Lehenengo tituluak -15 kapituluatan banatua- programa honetako dirulaguntzen baldintza espezifikoak arautzen ditu: xedea, definizioak, erakunde onuradunak, diruz lagun daitekeen egitatea, diruz lagun daitezkeen gastuak, laguntzen banakako zenbatekoa eta aurrekontu-zuzkidura.

Bigarren tituluak aplikatu beharreko araubide juridikoa jasotzen du, arau-hausteen eta ez-betetzeen araubideko organo eskudunak barne.

Hirugarren tituluak diru-laguntzak emateko prozedura arautzen du, eskabideak aurkezten direnetik ebazpena jakinarazten den arte.

Laugarren tituluak diruz laguntzen diren proiektuak gauzatzeko baldintzak, onuradunen betebeharrak eta ematen diren diru-laguntzak justifikatzeko eta kontrolatzeko bideak zehazten ditu.

valorar las repercusiones y efectos económicos de las iniciativas normativas y como se garantizará su financiación y sostenibilidad

En el presente caso, la repercusión económica en los presupuestos generales del Departamento de Promoción Económica de la Diputación Foral de Bizkaia del importe establecido en la base 55 del proyecto de decreto foral asciende a 1.400.000,00 euros, tal como se ha indicado en el apartado II) de esta memoria.

VI) CONTENIDO DE LA DISPOSICIÓN

El proyecto de decreto consta de 1 artículo único, 1 disposición adicional única, 1 disposición transitoria, 1 disposición derogatoria, 2 disposiciones finales y aprueba las bases reguladoras de la convocatoria de 2023 que consta de 4 títulos, 84 bases y 3 anexos.

El título primero -dividido en 15 capítulos- regula las condiciones específicas de las subvenciones de este programa: el objetivo, definiciones, las entidades beneficiarias, hecho subvencionable, gastos subvencionables, cuantía individualizada de las ayudas y dotación presupuestaria.

El título segundo recoge el régimen jurídico aplicable, incluyendo los órganos competentes, régimen de infracciones e incumplimientos.

El título tercero regula el procedimiento de concesión de las subvenciones desde la presentación de solicitudes hasta la notificación de la resolución.

El título cuarto especifica las condiciones para la ejecución de los proyectos subvencionados, las obligaciones de las adjudicatarias y las vías para la justificación y el control de las subvenciones otorgadas.





Eranskinak oinarrien osagarriak dira, eta dirulaguntzaren hainbat alderdiri egiten diete erreferentzia, hala nola Bizkaiko katalogatutako turismo-baliabideen zerrenda, merkatu eta produktu turistikoak eta turismo jasagarriaren adierazleak.

Proiektuaren funtsezko ezaugarriak honako hauek dira:

- Erakunde onuradunak, dagokion arloaren arabera: turismo-kudeaketako erakundeak, udalak, Bizkaiko eta EAEko turismo-elkarte sektorialak, bai eta EJSN bat duten turismo-enpresak ere, baldin eta “turismo-jarduera estrategikotzat” jotzen bada, edo turismoko proiektu/bezeroen fakturazioa aurreko ekitaldian guztizkoaren % 50etik gorakoa duten enpresak.
- Jardun-arloak:
 1. Turismo-kudeaketako ekosistema indartzeko dirulaguntzak;
 2. Estatuko laguntzak ez diren Bilbao Bizkaiko baliabide turistikoak indartzeko dirulaguntzak;
 3. Estatuko laguntzak ez diren Bilbao Bizkaiko turismo-produktuak finkatzeko dirulaguntzak;
 4. Estatuko laguntzak ez diren turismo-ekosistema iraunkorrerako proiektuak bultzatzeko dirulaguntzak;
 5. Estatuko laguntzak ez diren sektore-lehiakortasuna hobetzeko dirulaguntzak;
 6. Estatuko laguntzak ez diren helmuga digitalizatzeko dirulaguntzak;
 7. Bisitarientzako arreta hobetzeko dirulaguntzak;

Los anexos, complementarios a las bases, hacen referencia a distintos aspectos de la subvención como el listado de los recursos turísticos catalogados de Bizkaia, los mercados y productos turísticos y los indicadores de turismo sostenible.

Las características esenciales del proyecto son:

- Entidades beneficiarias según el área de que se trate: entes de gestión turística, Ayuntamientos, asociaciones sectoriales de turismo de Bizkaia y del resto del CAV, así como empresas turísticas que bien cuenten con un CNAE considerado como “actividad turística estratégica” o empresas cuya facturación en proyectos/clientes en turismo sea superior al 50% del total en el ejercicio anterior.
- Áreas de actuación:
 1. Subvenciones para el refuerzo del ecosistema de gestión turística;
 2. Subvenciones para la potenciación de los recursos turístico de Bilbao Bizkaia que no constituyen ayudas de estado;
 3. Subvenciones para la consolidación de los productos turísticos de Bilbao Bizkaia que no constituyen ayudas de estado;
 4. Subvenciones para el impulso de proyectos para un ecosistema turístico sostenible que no constituyen ayudas de estado;
 5. Subvenciones para la mejora de la competitividad sectorial que no constituyen ayudas de estado;
 6. Subvenciones para la digitalización del destino que no constituyen ayudas de estado;
 7. Subvenciones para la mejora de la atención a las personas visitantes;





8. Estatuko laguntzak ez diren merkatuetan turismoa sustatzeko dirulaguntzak;
9. Estatuko laguntzak diren Bilbao Bizkaiaren baliabide turistikoak indartzeko dirulaguntzak;
10. Estatuko laguntzak diren Bilbao Bizkaiako turismo-produktuak finkatzeko dirulaguntzak;
11. Estatuko laguntzak diren ekosistema turistiko jasangarri baterako proiektuak bultzatzeko dirulaguntzak;
12. Estatuko laguntzak diren sektoreko lehiakortasuna hobetzeko dirulaguntzak;
13. Estatuko laguntzak diren helmuga eta turismo-enpresak digitalizatzeko dirulaguntzak;
14. Estatuko laguntzak diren merkatuetan turismoa sustatzeko dirulaguntzak.

- Norgehiagoka-erregimenean ebatzen da.
- Dirulaguntzak zuzenean ordainduko zaizkio onuradunari, ordainketa aurreratu bakar baten bidez, emandako dirulaguntzaren zenbateko osoarekin. Bermerik eratu gabe.
- Justifikazioa justifikazio-kontuaren modalitatearen arabera egingo da, gastu-egiaztagiriak aurkeztuta, 2024ko urtarrilaren 1etik 2024ko otsailaren 29ra bitarteko epean, gauzatzeko epea martxoaren 31n amaitzen zaien jarduketak izan ezik, horiek justifikatzeko epea 2024ko maiatzaren 31ra artekoa izango baita.

Memoria honen I. eranskinean dekretu-proiektuaren edukiaren berezitasun batzuk berariaz justifikatu behar dira; zehazki:

8. Subvenciones para la promoción turística en mercados que no constituyen ayudas de estado;
9. Subvenciones para la potenciación de los recursos turísticos de Bilbao Bizkaia que constituyen ayudas de estado;
10. Subvenciones para la consolidación de los productos turísticos de Bilbao Bizkaia que constituyen ayudas de estado;
11. Subvenciones para el impulso de proyectos para un ecosistema turístico sostenible que constituyen ayudas de estado;
12. Subvenciones para la mejora de la competitividad sectorial que constituyen ayudas de estado;
13. Subvenciones para la digitalización del destino y de las empresas turísticas que constituyen ayudas de estado;
14. Subvenciones para la promoción turística en mercados que constituyen ayudas de estado.

- Se resuelve en régimen de concurrencia competitiva.
- El abono de las subvenciones se realizará directamente al beneficiario mediante un único pago anticipado, por el importe total de la subvención concedida. Sin constitución de garantías.
- La justificación se realizará conforme a la modalidad de cuenta justificativa con aportación de justificantes de gasto, en el plazo comprendido entre el 1 de enero de 2024 y el 29 de febrero de 2024, salvo aquellas actuaciones cuyo plazo de ejecución finalice el 31 de marzo que tendrán un plazo de justificación hasta el 31 de mayo de 2024.

El anexo I de la presente memoria recoge algunas particularidades del contenido del proyecto de decreto que deben ser justificadas específicamente; en concreto:





- a) Proiektuaren % 100 azpikontratatzeko aukera.
- b) Bermeak eratzeko beharrik ez izatearen justifikazioa.

VII) ESKUDUNTZA

Bizkaiko Foru Aldundiari dagokio xedapen honen xede den gaiaren gaineko eskumena, hala ondorioztatzen baita Bizkaiko Lurralde Historikoko Foru Erakundeen Hautaketa, Antolaketa, Araubide eta Funtzionamenduari buruzko otsailaren 13ko 3/1987 Foru Arauaren 17.2 artikulua eta Toki Araubidearen Oinarriak arautzen dituen apirilaren 2ko 7/1985 Legearen 36 d) artikulua modu koordinatuan irakurrita. Lege horretan ezartzen denez, foru-aldundien berezko eskumena da garapen ekonomiko eta soziala sustatzeko lankidetzaren ematea, arlo horretan gainerako administrazio publikoek dituzten eskumenekin bat etorritik.

Bizkaiko Foru Aldundiaren abenduaren 17ko 207/2019 Foru Dekretuak, Ekonomia Sustatzeko Sailaren Egitura Organikoaren Erregelamendua onartzen duenak, Ekonomia Sustatzeko Sailari esleitzen dio honako jardun-eremu hau: Bizkaia irudia kanpoan sustatzearekin eta turismoa sustatzearekin zerikusia duten jarduerak guztiak bultzatu eta garatzea; Bizkaia inbertsioak, talentua, bisitariak eta ekintzak erakartzeko aukera ematen duen lurralde gisa aurkeztea nazioarte mailan, eta Bizkaia lehentasunezkoak diren nazioarteko sareetan parte hartzea sustatzea.

VIII) PROZEDURA

Orain arte, proiektu honi dagokion espediente elektronikoa irekitzean adierazitako prozedura jarraitu da, hau da, memoria honen labur-labur deskribaturikoa, eta memoria hau

- a) La posibilidad de subcontratación del 100% del proyecto.
- b) Justificación de la no exigencia de constitución de garantías.

VII) COMPETENCIA

La competencia sobre la materia objeto de la presente disposición corresponde a la Diputación Foral de Bizkaia, tal y como se deduce de la lectura coordinada del artículo 17.2 de la Norma Foral 3/1987, de 13 de febrero, sobre Elección, Organización, Régimen y Funcionamiento de las Instituciones Forales del Territorio Histórico de Bizkaia y el artículo 36.1. d) de la Ley 7/1985, de 2 de abril, reguladora de las Bases de Régimen Local, donde se establece que es competencia propia de las Diputaciones la cooperación en el fomento del desarrollo económico y social de acuerdo con las competencias de las demás Administraciones Públicas en este ámbito.

El Decreto Foral 207/2019, de 17 de diciembre, de la Diputación Foral de Bizkaia, por el que se aprueba el Reglamento de Estructura Orgánica del Departamento de Promoción Económica, asigna al Departamento de Promoción Económica la actuación en el impulso y desarrollo de todas las actividades que tengan relación con la promoción de la imagen de Bizkaia en el exterior y la promoción turística, el posicionamiento de Bizkaia a nivel internacional como territorio de oportunidades para la atracción de inversiones, de talento, visitantes y eventos y promover la participación de Bizkaia en redes internacionales de interés prioritario para Bizkaia.

VIII) PROCEDIMIENTO

El procedimiento seguido hasta el momento es el indicado al abrir el expediente electrónico correspondiente al presente proyecto y descrito resumidamente en esta memoria, que se emite al objeto justificar el





bidaltzen da justifikatzeko betetzen direla erregulazio onaren printzipioak eta ekainaren 15eko 87/2021 Foru Dekretuan ezarritako izapideak eta dokumentuak betetzearen.

Orain arte izapidetutakoaz gain, eta behin memoria hau eta sailaren txosten juridikoa egin ondoren, txosten hauek egingo dira:

- Gastu baimena eskatzeko txostena.
- Kontrol ekonomikoari buruzko txostena.
- Generoaren araberako eraginaren aurretiazko ebaluazio-txostena
- Legezketasunari buruzko txostena.

cumplimiento de los principios de buena regulación, dar cumplimiento a los trámites y documentos establecidos en el Decreto Foral 87/2021, de 15 de junio.

Además de lo tramitado hasta la fecha y una vez emitida la presente memoria y el informe jurídico departamental se emitirán los siguientes informes:

- Informe para solicitar autorización del gasto
- Informe de control económico
- Informe de evaluación previa de impacto en función del género
- Informe de legalidad





I. ERANSKINA. Dekretu-proiektuaren edukiaren berezitasunak, berariaz justifikatu beharrekoak

a) Proiektuaren % 100 azpikontratatzeko aukera.

Azpikontratazio-baldintzak arautzen dituen 79. oinarrian definitzen da zer den azpikontratazioa, eta zehazten da onuradunek diruz laguntzen den jardueraren zenbatekoaren ehuneko 100 azpikontratatu ahal izango dutela

Dirulaguntzen foru erregelamenduak, 53. artikuluan, honako hau jasotzen du azpikontratazioari dagokionez:

“1. Diruz laguntzen den jarduera gauzatzea onuradunaren betebeharrak pertsonala da, oinarri arautzaileetan ezarririk dauden salbuespenekin, Dirulaguntzei buruzko Foru Arauaren 27. artikuluan eta Erregelamendu honetan ezarrita dauden mugen barruan. Oinarri arautzaileek azpikontratazioa ahalbidetzen badute muga kuantitatiborik ezarri gabe, onuradunak ezin izango du diruz laguntzen den jardueraren zenbatekoaren % 50 baino gehiago azpikontratatu, azpikontratu guztien prezioak batuta.”

Dirulaguntzen programa honetan diruz laguntzen diren proiektuak kanpoko kontratazio handia eskatzen duten proiektuak dira, adibidez, 5. eta 11. arloetan (enpresen lehiakortasuna hobetzeko dirulaguntzak), 6. eta 12. arloetan (turismo-destinoa digitalizatzeko dirulaguntzak) edo 8. eta 13. arloetan (merkatuetan turismoa sustatzeko dirulaguntzak). Ñabardura hori kontuan hartuta, proiektuak partzialki edo osorik azpikontratatzeko aurreikusten da lagundutako proiektu gehienetan.

Nolanahi ere, proiektu horietan funtsezko helburua ez da proiektua edo azterlana nork egiten duen, baizik eta proiektu horiek 1. oinarrian ezarririk dauden helburuak

ANEXO I. Particularidades del contenido del proyecto de decreto que deben ser justificadas específicamente.

a) La posibilidad de subcontratación del 100% del proyecto.

La base 79 que regula las condiciones de subcontratación define qué se entiende como subcontratación y determina que las beneficiarias podrán subcontratar la actividad subvencionada hasta un 100 por ciento del importe de la actividad subvencionada.

El Reglamento Foral de Subvenciones, en su artículo 53, recoge lo siguiente en lo relativo a la subcontratación:

“1. La realización de la actividad subvencionada es obligación personal de la persona beneficiaria sin otras excepciones que las establecidas en las bases reguladoras, dentro de los límites fijados en el artículo 27 de la Norma Foral de Subvenciones y en este Reglamento. Si las bases reguladoras permitieran la subcontratación sin establecer límites cuantitativos, la persona beneficiaria no podrá subcontratar más del 50 por 100 del importe de la actividad subvencionada, sumando los precios de todos los subcontratos.”

Los proyectos apoyados en este programa de subvenciones son proyectos que por su naturaleza requieren alta contratación externa para la ejecución de los trabajos, como por ejemplo en las áreas 5 y 11 (Subvenciones para la mejora de la competitividad sectorial), áreas 6 y 12 (subvenciones para la digitalización del destino) o en las áreas 8 y 13 (subvenciones para la promoción turística en mercados). Teniendo en cuenta esta matización, la subcontratación parcial o completa de los proyectos, es previsible en la mayor parte de los proyectos apoyados.

En todo caso, en estos proyectos el objetivo fundamental no es quién realiza el proyecto o estudio, sino que los mismos cumplan con los objetivos establecidos en la Base 1. Es decir,





betetzea. Hau da, berdin dio onuradunak berak edo kanpoko erakundeek proiektua osorik edo zati batean gauzatzen duten, kanpoko kontratazio gisa edo diruz laguntzen den jardueraren azpikontratazio gisa.

Ondorioz, jardueraren azpikontratazioaren gehieneko ehunekora mugatzea ez da garrantzitsua, bai balizko azpikontratazio horren ondorioengatik, bai beste jardueraremu batzuetan gertatzeko probabilitate txikiagatik, esaterako, 1 jardueran (turismo-kudeaketako ekosistema indartzea).

b) Bermerik edo abalik eskatu ez izanaren justifikazioa

Ordaintzeko modua arautzen duen dekretu honen 81. oinarriak ezartzen duenez, dirulaguntzak eman eta onartu ondoren ordainduko dira, ordainketa aurreratu bakar batean, ematen den dirulaguntzaren zenbateko osoan, partaidetza sustatzeko neurri gisa inolako bermerik eskatu gabe.

Dirulaguntzei buruzko 5/2005 Foru Arauaren 31.4 artikulua eta Dirulaguntzei buruzko Araudiaren (34/2010 Foru Dekretua) 74.2 artikulua araberak, dirulaguntzen ordainketa aurreratua baimentzen eta mugatzen du. Ordainketa hori justifikatu egin behar da eta dirulaguntzen izaerarekin bat etorri behar da, eta laguntzen hartzaile diren kolektiboek aukera ematen die diruz lagundutako jarduerak garatzeko finantza-baliabideak izateko, bestela ezin izango bailitzateke egin behar adina baliabide ez izateagatik.

Era berean, Dirulaguntzei buruzko 5/2005 Foru Arauaren 30. artikulua araberak, bermea eratzetik salbuestea aurreikusten da, oinarri arautzaileetan berriaz kontrarik adierazi ezean, besteak beste, administrazio publikoek, 3.000 eurotik beherako dirulaguntzen onuradunei edo irabazi-asmorik gabeko erakundeei.

es indiferente si el proyecto es ejecutado total o parcialmente por la propia beneficiaria o por entidades externas, en forma de contratación externa o, incluso, de subcontratación de la actividad subvencionada.

En consecuencia, la limitación al porcentaje máximo de subcontratación de la actividad es irrelevante tanto por las consecuencias de esta eventual subcontratación como por su baja probabilidad de ocurrencia en algunas otras áreas de actuación como la 1 (refuerzo del ecosistema de gestión turística).

b) Justificación de la no exigencia de garantías o avales

La base 81 del presente Decreto, que regula la forma de pago, establece que el abono de las subvenciones se efectuará tras la concesión y aceptación de la misma mediante un único pago anticipado, por el importe total de la subvención concedida, sin exigir ningún tipo de garantía.

Conforme al artículo 31.4 de la Norma Foral 5/2005 de subvenciones y el artículo 74.2 del Decreto Foral 34/2010, Reglamento de Subvenciones, permiten y limitan el abono anticipado de subvenciones, que debe ser justificado y acorde a la naturaleza de las subvenciones y la posibilidad de los colectivos destinatarios de las ayudas de disponer de recursos financieros para desarrollar la actividad subvencionada.

Asimismo, conforme al artículo 30 la Norma Foral 5/2005 de subvenciones prevé la exoneración de la constitución de garantía, salvo previsión expresa en contrario en las bases reguladoras, entre otros, a las Administraciones Públicas, personas beneficiarias de subvenciones concedidas por importe inferior a 3.000 euros o entidades sin ánimo de lucro.

Beraz, laguntza-programa honen erakunde

Por tanto, todas las entidades beneficiarias de





onuradun guztiek, Turismoa Kudeatzeko Entee eta udal turistikoek eta haien mendeko tokiko entee, enpresek izan ezik, arestian aipatu den foru arauaren arabera salbuespena izango dute.

Enpresei dagokienez, uste dugu abal bat eratzeko eskakizunak eta proiektatutako jarduerak egiteko behar diren baliabide ekonomikoak ez izateak disuasio-efektua izan dezaketela deialdian parte hartzerakoan.

Horregatik, eskakizun falta hori justifikatuta geratzen da erakunde gehiagok parte hartzea sustatzeko neurri gisa.

este programa de ayudas, Entes de Gestión Turística, ayuntamientos turísticos y sus entes locales dependientes, salvo las empresas, disfrutan de esta exoneración conforme a la Norma Foral citada. .

En relación con las empresas, consideramos que la exigencia de la constitución de un aval junto con la carencia de los medios económicos necesarios para abordar la realización de las actividades proyectadas puede tener un efecto disuasorio a la hora de participar en la convocatoria.

Por ello, esta falta de exigencia queda justificada como medida de fomento de participación de un mayor número de entidades.





II. ERANSKINA Bilbao-Bizkaia helmugaren 2022rako turismo-garapen jasangarria bideratutako dirulaguntzen programa arautzen duen maiatzaren 24ko 78/2022 Foru Dekretuaren aldaketan taula.

Hurrengo taulan, diru-laguntzen deialdi bereko aurreko erregulazioarekin alderatuta dekretuan sartutako eduki-aldaketak jaso dira, bai eta aldaketa horiek zergatik ez diren funtsezkoak arrazoitzea ere. Ez dira aipatzen ortografia- eta gramatika-zuzenketak, ordena-aldaketak eduki bera errespetatuz, paragrafoen eta epigrafeen zenbaketaren egokitzapena eta idazketaren hobekuntza hutsa, esanahi-aldaketarik ez dakartenak.

ARTIKULUA EDO OINARRIA	ALDAKETAREN DESKRIBAPENA	FUNTSIK GABEKO IZAERA ARRAZOITZEA
Zioen azalpena I	Aldaketak antolamenduan eta idazkeran, Ekonomia Sustatzeko Sailaren Oinarri Homogeneoek ezarritako ordenaren arabera.	Dekretuaren egitura eta oinarrien idazkera zerbitzu orokorrek egindako eredura egokitu da, funtsezko aldaketarik sartu gabe.
Zioen azalpena I	Hurrenez hurren, 4. eta 6. arloak banatzearen ondorioz, 11 eta 13 arloak gehitu zaizkie 2022ko dekretuan finkatutako lehentasuneko arloei.	Aldaketa hori legeak aginduta egin da, estatuko laguntzak direnak eta estatuko laguntzak ez direnak bereiztean.
Zioen azalpena I	Lehentasuneko eremu gisa 5. arloa sartzen da, baita 12. arloa ere, aurrekoaren banaketa baita.	Aldaketa horrek ez dakar edukiaren funtsezko aldaketarik.
Zioen azalpena III	Entzunaldiaren eta jendaurreko informazioaren izapidearen memoria ezabatzea.	Ez da deialdi berria edo 2022koa nabarmen aldatuko duena.
Zioen azalpena IV	9-14 arloak sartu dira, Europako araudiaren arabera.	Idazkera Oinarri Homogeneoen eredu berrira egokitu da, 2022ko dekretuaren edukia aldatu gabe.
Xedapen iragankor bakarra.	Xedapena sartu da: 78/2022 Foru Dekretua aplikatzea haren indarraldian sortutako egoerei.	Idazkera Oinarri Homogeneoen eredu berrira egokitu da.
Xedapen indargabetzaile bakarra.	Xedapena sartu da: 78/2022 Foru Dekretua indargabetzea.	Idazkera Oinarri Homogeneoen eredu berrira egokitu da.
Azken xedapenetako bigarrena. Indarrean jartzea	1. eta 2. epigrafeak gehitu dira	Idazkera Oinarri Homogeneoen eredu berrira egokitu da.
